

LASARTE-ORIAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA (2016-2019)



LASARTE-ORIAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA

1-**LEGE ESPARRUA (I)**

Soraluzeko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana Eusko Legebiltzarrak 2005ko otsailaren 18an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako onartu zuen 4/2005 Legean zehazturiko eskuduntza esparruaren barnean garatuko da.

Aipaturiko Legearen I. Tituluak, bere I. kapituluaren 7. artikuluan, “Tokiko Administrazioen eginkizunak”, zehazten ditu Tokiko Administrazioari emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dagozkion eginkizunak:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.*
- b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*
- c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.*
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.*
- e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.*

- f) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.*
- g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.*
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere*
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*
- j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.*
- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.*
- l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.*
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.*

2-**LEGE ESPARRUA (II)**

Era berean, 4/2005 Legearen I. Tituluak bere II. Kapituluak, "Euskal Herri Administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioa", I Atalaren 10.A I Atalaren 10. Artikuluak zehazten ditu tokiko administrazioen eginkizunak berdintasunaren arloan:

1. Foru eta toki administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.

2. Erakunde, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan gutxienez ondoko eginkizunak beteko dituzte:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen eta ebaluazio mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d)) Bakoitzak bere administrazio-sailei eta beren mende duden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea

- e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.
- f)) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.
- g)Emakumeei eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezten proposamenak eta sustapen-lana egitea.
- h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria- egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- i)) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeak edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- j)Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea
- k)Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta bereziki, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.
- l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

3-**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (I)**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, bere 15. artikuluan, zehatz-mehatz agintzen dio Eusko Jaurlaritzari legegintzaldi bakoitzean Berdintasunerako Plan bat onesteko, euskal botere publikoek berdintasunaren arloan bideraturiko jarduerak modu koordinatu eta globalean jaso ditzan. 2013ko abenduan onartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana, honako bi esparru handi hauetan egituratzen dena:

Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak. Hamahiru neurri Euskal Herri Administrazioen berdintasunaren aldeko oinarriaren integrazioa bultzatzeko.

G1.Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea.

G2.Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.

G3.Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea.

G4.Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.

G5.Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia sartzea.

G6.Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.

G7.Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea.

G8.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.

G9.Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.

G10.Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.

G11.Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.

G12.Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua sustatzea.

G.13. Kotsultarako eta parte hartzeko organoetan genero ikuspegia sartzea

Esku hartzeko ardatzak berdintasunaren arloan. Hiru esparru nagusi berdintasunaren arloan, eta zortzi berariazko programa

1.ARDATZA. BALIOEN ALDAKETA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

1. Programa: Balioen aldaketa
2. Programa: Ahalduntze pertsonalaren aldeko laguntza
3. Programa: Ahalduntze kolektiboaren aldeko laguntza
4. Programa: Ahalduntze sozial eta politikoaren laguntza

2.ARDATZA. GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUKIDEA

5. Programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak
6. Programa: Uztartze erantzukidea

3.ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

7. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa
8. Programa: Antzematea eta arreta

EAEko Berdintasunaren aldeko legeria eta plangintza hauetara biltzen da plan honen esparru arau emailea eta estatuan , Europan eta nazioarteko mailan azken urteotan berdintasunaren aldeko politiken arabera garatu diren lege esparruen barnean dihardu era berean .

****GIPUZKOAKO FORU PLANA****

Aurrekoaz gain, erreferentziazko esparrutzat hartu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana, arau eta lege testuinguru berebean diseinatua.

4LASARTE-ORIOAKO I BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETARAKO EGITURAK****

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ezinbesteko baldintzak dira honen eraginkortasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko. Jarraipenaren bitartez ekintzen ezarpen maila ezagutarazteaz gain, izandako zailtasunak eta jarraitutako estrategiak aztertuko dira, eta horretarako 3 lan egitura izango dira:

Sexuen elkarbizitzarako emakumearen zentroa.

Berdintasun batzordea

«Berdintasun kontseilua».

Planaren ebaluazioa gauzatzeko, ekintzen fitxetan agertzen diren adierazleak eta informazio iturriak, batzordeetako bileren aktak eta garrantzitsua izan daitekeen edozein informazio bilduko duen txostena landuko da urtero. Txostena honen elaborazioa Gizarte zerbitzuetako departamentuaren ardura izan arren, gainontzeko eragileen inplikazio mailak baldintzatuko du (fitxen betetze maila, bileretan parte hartze maila...

5-**PLANAREN ESKU HARTZE LERROAK

Lau esku hartze lerroren inguruan egituratu da Lasarte-Oriako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana. Lehenengo lerroak Berdintasunaren aldeko Gobernantza du helburu, hau da, Berdintasunerako oinarriak Udalaren erakunde eta politiketan txertatzea da haren xedea, horrenbestez lortuko baita esku hartze publiko eraginkorragoa, sinesgarriagoa eta berdinzaleagoa.

Bigarrenak emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa du helburu, eta bertan, 5 programen bitartez genero-desberdintasunak eta diskriminazioak onartzen ez duen gizarte baten aldeko apustua egiten da.

Hirugarren lerroak, gizarte antolakuntza erantzunkidea du helburu eta laugarrenak berriz emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

0. UDAL GOBERNANTZA

1.Lerroa: GOBERNANTZA

Helburua:

Lasarte-Oriako udalean, egiazko berdintasunean aurrerapausoak egiten dituen eta bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatzen laguntzen duen gobernagarritasun eredu bat eraikitzeko laguntza ematea.

Oro har, gobernantza kontzeptuaz gobernatzeko forma berri bat adierazi nahi da; forma horren erdigunean erabakiak hartzea eta erabakiak abian jartzeko geroagoko prozesua daude, erakunde publiko, merkatu eta gobernuz kanpoko eragileen arteko elkarreragin eta lankidetzari handiagoak diren ingurune batean.

Genero ikuspegia administrazio jardueran bideraturik, hobetua da Gobernantza, Lasarte-Oriako Udalak Berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gainera, haren esku hartze publikoa eraginkorragoa, sinesgarriagoa, eraginkorragoa eta bidezkoagoa delako.

Genero mainstreaminga gobernagarritasun-eredua-hots, gobernu ona definitzen duen bigarren funtsezko estrategia da. Kontzeptua 1995ean adostu, finkatu eta zabaldu zen nazioartean, Beijin-go Emakumeen buruzko Nazio Batuen IV. Munduko konferentziako Ekintza Plataforma onartu zen.

Kontzeptu horren definizioak hainbat adiera baditu ere azpimarratzen diren elementuen arabera, mainstreaminga estrategia dual moduan ikusten da, elementu hauek barnean dituenak: genero-ikuspegia ekintza, alor eta programa guztietan sartzea, eta emakumeentzat jabetze prozesuak sustatzea.

Genero-mainstreamingak aldaketa operatiboa dakar, izan ere, lehen "emakumeen arloak" deituriko berriazko egituren eginkizuna emakumeen beharrei erantzutea zen modu berean, mainstreamingaren bidez, estrategia bezala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna "korronte nagusiaren" osagarrietako bat izatea lortu nahi da, hau da, lehentasun-estatusa bereganatzea. Horretarako ezinbestekoa da antolaketa erantzukizun partekatuaren nozioa, emakumeen arloak lehen zuen erantzukizun eksklusiboa ordezkatzeko duena, gauzatzea.

Bi estrategia horiek zabaltzean gobernantza eta herritarren parte-hartzea, eta genero-mainstreaminga, beharrezkoa da zeharka kontuan hartzea ikuspegi feminista gehitu behar dela, eta udal-erakundeak sustatzen dituen parte hartzeko prozesu eta espazioetan pertsonen egitura sozioekonomikoan hartzen dituzten lekuen aniztasuna onartu behar dela.

LEGE ESPARRUA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikulua, eta II. Titulua: Euskal herri administrazioen eta aginteen jarduketan genero ikuspegia integratzeko neurriak.

EAEko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VI. Plana. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gobernantza

3.4. Artikulua. Genero ikuspegiaren integrazioa

Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

ARLO GUZTIAK

G.1. Pixkanaka arlo guztietako ikerketa eta estatistikak genero ikuspegira egokitzea							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.1.0	Udaleko departamentu guztietan erabiltzen diren adierazle, inkesta eta informazio bilketetan, sexu aldagaia ezartzeari buruzko lehen analisiak garatzea (Espedienteak, gestionatzeko aplikatiboan, galdetegiak, udaleko arlo ezberdinetan erabiltzen dituzten adierazleak...)	ARLO GUZTIAK	Aztertu diren dokumentuen % kopurua.				
G.1.1	Departamenduan erabiltzen diren informe, inkesta, etekin adierazleak, memoria eta sexu aldagaia pixkanaka	ARLO GUZTIAK	Sexu aldagaia kontuan izanda diseinaturiko				

	ezartzen joatea. Horretarako sexua identifikatzen duen laukitxoa fitxa eta aplikatiboetan sartuz		estatistika eta tresnen garapena ehunekoetan.				
			Genero ezberdintasunen azterketa jasotzen duten txosten kopurua, sailka banaturik.				
G.1.2	Departamenduarentzat interesgarriak izan daitezkeen aldagai eta adierazleak identifikatzea. (denboraren erabilera, familiaren ardurak, ...) I. planeko helburuak burutu ahal izateko.	ARLO GUZTIAK	Planteatutako adierazle berrien erlazioa				
G.1.3	Aldagai hauek informazioa jasotzeko fitxetan txertatzen joatea	ARLO GUZTIAK	Gehitu diren adierazleen ehunekoa				
			Irizpideen erabilgarritasun maila				

G.2. Pertsonal tekniko eta politikoari formakuntzaren inguruko baliabideak ematea. Berdintasun gaietan trebatze aldera. BERDINTASUN GAIETAN UDAL MAILAN FORMAZIO PLANA GARATUZ							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.2.1	Arloan genero ikuspegia txertatzeko dauden kapazitazio beharrak identifikatu eta honen berri Gizarte zerbitzuko departamentuari eman.	ARLO GUZTIAK	Identifikatu diren kapazitazio beharrei erantzun bat eman.				
G.2.2	Identifikatu diren formazio beharren arabera, formazio hauetan parte hartzeko konpromisoa hartzea.	ARLO GUZTIAK	Sexuaren arabera sailkatuz, parte hartu				

			duteren kopurua.				
G.2.3	Formazio honen ebaluazioa egin eta etorkizunari begira formazio beharrak identifikatu.	ARLO GUZTIAK	Aurrera eraman diren kapazitazio ekintzen balorazioa				
G.2.4	Udaleko pertsonal tekniko eta politikoei zuzendutako berdintasun gaian inguruko formazio plana diseinatu, lantaldearen ordutegira egokituz eta bertara dedikatutako denborari balioa emanaz.	ARLO GUZTIAK	Egin diren formazio ekintzen kopurua. -Zein pertsonen zuzentzen zaien formazioa				
G.2.5	Udaleko arlo eta zerbitzu ezberdinen artean berdintasunaren inguruan dagoen informazioaren sistematizazioaren inguruko baliabideen berri eman	ARLO GUZTIAK	Berri eman diren baliabide eta zerbitzuen kopurua eta erlazioa				
			Emandako informazioa (zenbat aldiz eta zein arloari)				

Formazio saioen AURREKONTUA:

2016: 2.500€

2017: 2.500€

2018: 2.500€

2.019: 2.500€

G.3. Pixkanaka udaleko kontratazio politiketan eta diru-laguntzetan, genero ikuspegia txertatzea.							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.3.1	Kanpora begira egiten diren zerbitzuen kontratazioetan Berdintasun plan honen helburuekin bat datozenen kontratazioa kontuan izan (Adz: Hezkidetza oinarri duten aisialdi zerbitzuen kontratazioa, azpikontratatu beharreko enpresari berdintasun plana izatea baloratzea,...)	ARLO GUZTIAK IDAZKARITZA	Txertatu behar diren genero irizpideen identifikazioa -Egindako kanpo kontratazioetan zenbatetan txertatu diren berdintasun gaiarekin lotura duten edukiak.				
G.3.2	Pixkanaka berdintasun irizpideak txertatzen joan elkarteei bideratzen zaizkien diru laguntza deialdietan	IDAZKARITZA, KULTURA, KIROLA, EUKARA, GIZARTE ZERBITZUAK	Genero irizpideak txertatuta -Diruz lagundu diren elkarte kopurua -Diruz lagundu diren berdintasun irizpideak txertatuta dituzten eskakizun kopurua.				
G.3.3	Udaletik abiatzen diren diru laguntzen inguruan hauen onuradun izan diren elkarteek txertatuak dituzten berdintasun irizpideen betetze mailaren jarraipena egin.	KULTURA, KIROLA, EUKARA, GIZARTE ZERBITZUAK	-Jarraipena egin zaien elkarte kopurua.				

DOKUMENTAZIOA LAGUNGARRIA

G.3.1. Ekintza burutu ahal izateko lagungarria izan daiteke dokumentua eransten ditugu. Hala ere honako link honetan genero irizpideak txertatzen dituzten adibide ezberdinak topatu daitezke:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20020/eu/contenidos/informacion/ipp_clausulas/eu_emakunde/criterios_de_adjudicacion.html

G.3.2. ekintza burutu ahal izateko DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEN KLAUSULEN EREDUAK eransten dugu

[Dirulaguntza publikoen balorazio irizpideak.pdf](#)

G.4. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.4.0	Udaletik urtean egiten diren kontratazio berrietan kuota sistema bat ezarri modu ezberdinak kontuan hartuz.	IDAZKARITZA	Kuota sistema txertatuta Aurkitutako zailtasunen erlazioa				
G.4.1	Berdintasun irizpideak txertatu udal enplegu publikoko aukeraketa prozesuetan, hornitze edo barne promozioetan.	IDAZKARITZA	Txertatu behar diren genero irizpideak identifikatuta Berdintasun irizpideak txertatzen dituzten prozesuak zenbatekoak.				
G.4.2	Udaleko oposaketetako gai-zerrendetan sistematikoki berdintasunaren Lege eta gaiaren inguruko ikasgaiak sartzea.	IDAZKARITZA	Txertatu diren gaien kopurua oposaketa bakoitzean. -Zenbat oposaketetan txertatu diren berdintasun gaiak				

G.5.Berdintasunerako koordinazio egiturak indartzea.							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.5.1.	Berdintasun inguruko plaza bat sortzeko beharra baloratu.	GOBERNU TALDEA IDAZKARITZA	-Berdintasun inguruko plaza sortua				
G.5.2	Berdintasunaren inguruko baliabideak eta egiturak finkatu: -Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroko proiektua finkatu. -Herri mailan berdintasun kontseilu bat sortu. -Berdintasun inguruko kontu guztiak lantzeko komisio propio bat sortu. - Berdintasuna lortze aldera udalaz gaineko erakundeekin komunikazio-kanal irekiak mantendu eta hauetan parte hartzen jarraitu (DFG, Berdinsarea, Emakunde, Berdin bidean...) -Berdintasun inguruko eta sexu informazio eta aholkularitza bulegoko inguruko espazio propio bat eraiki Lasarte-Oriako web orrian.	GOBERNU TALDEA ARLO GUZTIAK BERDINTASUNA (EZ)	Berdintasunerako esturturen garapena. -Egindako bilera kopurua. -Bileretara deiturikoen kopurua -Parte hartu dutenen kopurua -Gune propioa eraikita.				
G.5.3	I.Berdintasun planaren difusioa: Udaletxeko web orrian ;		-Egindako aurkezpen				

	berdintasun planaren aurkezpen publikoa; udaleko langileen artean aleak banatu, udal zerbitzuen artean, elkarten artean...	GIZARTE ZERBITZUAK BERDINTASUNA (EZ)	kopurua -Banatutako ale kopurua -Erabilitako hedabide kopurua.				
G.5.4	Berdintasun planaren inplementazioaren koordinazio eta jarraipena:	BERDINTASUNA (EZ) ETA ARLO GUZTIAK	Egindako plan operatiboaren kopurua eta garapena.				
	Planak irauten duen urte bakoitzean zein ekintza eramango diren aurrera identifikatu eta hauen onarpenerako Plenora eraman.	ARLO GUZTIAK	-Arlo bakoitzean identifikatutako ekintza eta baliabide kopurua				
	Ekintza hauetarako behar diren baliabideak identifikatu (ekonomikoak, ordu dedikazioa).	ARLO GUZTIAK	-Inplementatu diren ekintzak				
	Planaren inplementazio egokia bermatzeko jarraipena eta ebaluazioa egin	BERDINTASUNA (EZ)	-Proposatutako neurri zuzentzaileak				
	Ebaluazio honen arabera neurri zuzentzaileak finkatu.	BERDINTASUNA (EZ)	-Inplementatu diren neurri zuzentzaileak				
G.5.5	Udaleko arlo guztiek genero ikuspegia kontuan hartzen duten programa eta ekintzen planifikazio eta gauzatzea. -Emakumearen zentroari aholkularitza eskatu genero ikuspegia txertatze aldera, arlo ezberdineko plan, programa edo ekintzen memorietan, onartutzat, abian jarri aurretik. - Egindako ekarpen edo iradokizunak jaso. - Behin-behineko dokumentuak idatzi.	BERDINTASUNA (EZ) ETA ARLO GUZTIAK	Errebisatutako plan, programa edo memoria kopurua. -Egindako kontsulta kopurua. -Proposatutako iradokizun kopurua -Ezarri diren iradokizun kopurua. -Proposatu edo inplementatu diren iradokizunen				

			balorazioa				
--	--	--	------------	--	--	--	--

G.6. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.

KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.6.1	Hezkuntza maiatik, genero ikuspegia txertatzeko Lasarte – Oriako ikastetxeei, aholkularitza, laguntza eskaini beraien hezkidetzeta plana lantze horretan.	BERDINTASUNA (EZ) HEZKUNTZA	Ikastetxeetako proiektuetan genero ikuspegiaren eboluzioa				
G.6.2	Genero ikuspegia txertatu Lasarte-Oriako jaietako egitarauan jai batzordearekin elkarlanean.	BERDINTASUNA (EZ) KULTURA	Jaietako egitarauan genero ikuspegiaren eboluzioa				
G.6.3	Tokiko aldizkarian, Txintxarrin zutabe egonkor bat mantendu Zutabe morea deiturikoa, berdintasun gairekin lotura duten gaiak bertan lantzeko	TOKIKO HEDABIDEAK BERDINTASUNA (EZ)	Zutabe morea txertatua Berdintasun inguruan landutako gai mota Landutako gai kopurua				

G.7.Modu guztietako hizkuntza, eduki eta irudien erabilera ez sexista garatu.

KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
-------	---------	------------	-------------	------	------	------	------

		PARTE HARTZAILEAK					
G.7.1	Euskara eta gaztelerako hizkuntza ez sexistaren inguruko gida ezberdinen difusioa udal arloen artean	ARLO GUZTIAK	Zabaldutako gida kopurua.				
G.7.2	Udalak zuzenean eta azpikontrataturiko edota ekintzen babesleen euskarri iragarkien analisiak egin, publikatzen diren irudi eta edukietan, sexu arrazoiagatik inolako bazterketarik ez egoteko eta hauek erabat deuseztatzeko	ARLO GUZTIAK	Aurkitu diren hizkuntza edo irudi ez sexista duten dokumentu kopurua -Berrikusi behar diren dokumentuen kopurua. -Egindako zuzenketa kopurua				
G.7.3	Udalaren hizkera eta irudiaren erabileraren gaineko gomendioei buruzko ordenantza bat garatzea.	GOBERNU TALDEA	Ordenantza garatuta				
G.7.4	Langileen artean hizkuntza eta irudien erabileran berdintasun irizpideak kontuan izatea bultzatu, laguntza teknikoa eskainiz behar denean dokumentuak aztertu eta moldatzeko dokumentu administratiboak, udal kanpainak, publikazioak...	ARLO GUZTIAK	-Eskainitako laguntza tekniko kopurua -Errebasatutako dokumentazio kopurua.				

G.8.-Genero inpaktua eta genero ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuen azterketarekin gutxinaka hasi							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.8.1	Genero ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuen	IDAZKARITZA/KONTU	Txertatu diren neurri				

	inguruko formazioa gauzatu eta lehenengo irizpideak udalean finkatu	HARTZAILETZA BERDINATSUNA (EZ)	kopurua -Arlo guztientzat tresnaren balioztatzea. Genero Inpaktuaren balorazioaren txostenak - Proposatutako neurri zuzentzaileak -Ezarritako neurri zuzentzaileak				
G.8.2	Emakumearen zentroarekin batera esperientzi pilotu bat aurrera eraman genero aurretik inpaktuaren ebaluazioa eginez generoaren baitan udal arlo ezberdinetan.	ARLO GUZTIAK	Genero Inpaktuaren balorazioaren txostena/k - Proposatutako neurri zuzentzaileak -Ezarritako neurri zuzentzaileak.				

G.9.-Emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatua areagotu eta handitu udaleko planifikazio eta erabakitze eremuetan; baita bertatik antolatutako epaimahaietan							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
G.9.1	Parekidetasun irizpidea ezartzea, udaleko erabaki organoetan, batzordeetan, tribunaletan..., emakume eta gizonen kopurua parekidea izateko. (jai batzordearen osaketa eta dinamizazioa zaintzea, emakume eta gizonen artean parekidetasuna bultzatuz eta batzordea indartuz)	GOBERNU TALDEA	Errepresentazio parekidea gizon eta emakumeen artean zenbat kopuru eta ehunekoetan dagoen organo eta komisioen artean.				

			Ordenantza martxan				
G.9.2	Udaletik martxan jartzen diren lan postu publikoen aukeraketa, promozio eta hornidura prozesuetan erabakitze mahaia parekidea izatea	IDAZKARITZA	Gizon eta emakumeen arteko errepresentazio orekatua bermatzen duten epaimahaien zenbatekoa eta ehunekoa				

****1. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOEN ALDAKETA****

Zer da emakumeen ahalduntzea? Emakumeen ahalduntzearen kontzeptua emakumeen eta gizonen berdintasuneko politiken esparruan ezagutarazi zen, Nazio Batuen Erakundearen Nairobiko Nazioarteko Konferentzian. Baina, handik urte batzuetara hartu zuen garrantzia, 1995ean, erakunde horrek Pekinen emakumeei buruz egindako IV. Konferentzian, herri-aginteeek emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko politikak eta jarduerak egiteko akordioen esparruan.

Hala, Pekineko Adierazpenaren zenbait artikuluk kontzeptu horren garrantzia nabarmentzen dute. Zehazki, 7. artikulua arabera, “muga eta oztopo horien kontra borrokatzeko eta mundu osoko emakumeen aurrerapena eta ahalduntzea sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta erabaki dugu zeregin horrek premia ekitea eskatzen duela; erabakitasunez, itxaropenez, lankidetzan, elkartasunez, orain eta hurrengo mendeari begira ekitea, gainera”. Ildo horretatik, 12. artikulua honako hau nabarmentzen du: “emakumeen ahalduntzea eta aurrerabidea, baita pentsatzeko askatasunerako, kontzientzia, erlijio eta sinesmen, eta abarrerako eskubideak ere”.

Azkenik, 13. artikulua xedatzen du “emakumeen ahalduntzea eta gizartearen arlo guztietan berdintasun egoeretan, erabakiak hartzeko prozesuetan botere-postuetan parte hartzea ezinbestekoak dira berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko”.

Ardatzak 5 programa ditu, eta programa bakoitzean zehaztuta dago programa horren sail arduradun/ak: kultura (k), kirola (ki), gizarte zerbitzuak (gz), hirigintza (hi), hezkuntza gazteria (hg) edota berdintasuna (ez).

PROGRAMAK

PROGRAMA: BALIOAK ALDATZEA SENTSIBILIZAZIOA ETA TREBAKUNTZA

PROGRAMA: AHALDUNTZE PERTSONALA LAGUNTZEA

PROGRAMA: EMAKUMEEN ELKARTEEN MUGIMENDUAK SUSTATZEA ETA EMAKUMEAK HORIETAN PARTE HARTZERA BULTZATZEA

PROGRAMA: AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA LAGUNTZEA

LEGE ESPARRUA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. 25 artikulua. Kultura jarduerak .

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana I. Ardatza: Balio Aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala.

“ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. 44. Artikulua.Osasuna.

“ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.III. Titulua. IV. Kapitulua 2. Atala –Enplegua– eta V. Kapitulua – Beste oinarriko gizarte eskubide batzuk–

TAULAK

**GZ.A.1.Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
GZ.A.1.1	Pobrezia edota bazterkeria arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoerak eta beharrak aztertu, ea dauzkaten laguntzak zein bitartekoak nahikoa ote diren, guztia ere	GIZARTE ZERBITZUAK	Identifikatu diren behar eta egoerak -Babesa aztertua				

	malgutzeko edo baliabide osagarriak sortzeko irizpideak balioesteko.		-Sortu diren baliabide osagarrien zenbatekoa -Lortu diren emaitzak				
GZ.A.1.2	Baztertuak izateko zorian dauden emakumeen egoera hobetzeko laguntza osagarri sozial eta ekonomiko ezartzeko bideragarritasuna aztertu:	GIZARTE ZERBITZUAK	Martxan jarri diren neurri osagarriak				
	●Zaintza lanak erabat beren kargu dituzten emakumeek lehenatasuna izatea lanerako trebakuntza ikastaroetan, beren beharrian espezifikoei erantzunez.		-Neurri osagarri hauek ezarri zaizkien emakumeen zenbatekoa				
	●Zerbitzu (jangelak, haur eskolak, udako udalekuak, etxez etxeko zerbitzua, eguneko zentroa...) eta/edo ekintzen onarpen baremoetan faktore edo irizpide berriak ezarri, umeen / helduen zaintza beraien menpe dituzten emakumeei lehenatasuna emateko.		-Erabiltzaileek egindako balorazioa				

**GZ.A.2.Baliabide sozialerako sarbidea hobetzea batez ere, diskriminazio anitzeko egoeren arretari dagokionez.							
KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
GZ.A.2.1	Etxebideko etxebizitza batean aukera izatearen inguruan informatu eta tramiteen berri eman gizarte zerbitzuetako erabiltzaile diren pertsona guztiei, gizarte bazterketa egoeran daudenak, indarkeri matxista biktima direnak, edo baldintzak betetzen dituen orori.	GIZARTE ZERBITZUAK	-Etxebide inguruan tramitatu diren eskaerak. -Onuragarriak izan diren pertsona kopurua.				
GZ.A.2.2	Esku hartze programetan, diskriminazio anitzeko egoeran	GIZARTE ZERBITZUAK	Formazio ekintzetan				

	dauden emakumeekin, gaitasun sozio politikoak landu, beraien auto-antolaketa indartuz, beraien interes eta beharren kanalizazio tresna izan daitezzen		parte hartu duten emakume kopurua -Bazterketa arriskuan dauden emakumeen auto antolaketarako asistentzi teknikoaren eboluzioa				
GZ.A.2.3	Diru laguntzak bideratzerakoan alarguntasun, banaketa egoerak direla eta egoera horretan dauden emakumeei lehentasuna eman, eta are gehiago familia ardurak badituzte.	GIZARTE ZERBITZUAK	Eskaini diren neurri eta zerbitzu osagarriak. -Neurri hauek eskaini zaizkien emakume kopurua.				
GZ.A.2.4	Lanbidera bideratu gizarte bazterketa egoeran dauden emakumeak lanerako formazio saioetan eta kontratazioan laguntzarako programatara aukerak errazteko	GIZARTE ZERBITZUAK	-Bideratutako emakume kopurua -Jasotako formazio mota eta kopurua				
GZ.A.2.5	Gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden eta aniztasun funtzionala duten edota beren autonomia sustatzeko laguntza behar duten emakume eta gizonen beharren errealitatea eta estaldura-maila aztertu eta berariazko beharretara egokitu baliabideak.	GIZARTE ZERBITZUAK	Identifikatu diren behar eta egoerak -Babesa aztertua -Sortu diren baliabide osagarrien zenbatekoa -Lortu diren emaitzak.				
GZ.A.2.6	Herritarrei gizarte zerbitzuetatik eskaintzen diren zerbitzu eta baliabideen inguruko informazioa eman.	GIZARTE ZERBITZUAK	-Gida osatua -Banatutako ale kopurua.				

****HG. A.1.** Neska gazteen ahalduz eta balioak aldatze prozesuak sustatzea**

KODEA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTE HARTZAILEAK	ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
HG.A.1.1	Gaztelekuko urteko programetan hezkidetzari buruzko edukiak txertatu (jolas ez sexistak, ipuin ez sexistak, emakume ezberdinen ekarpenak ezagutza arlo ezberdinetan...)	GAZTERIAKO PERTSONALA	Txertatutako edukien erlazioa				
HG.A.1.2	Guraso eskoletako guraso elkarteetan, gurasoentzako eskaintzen den formazio programan, hezkidetzaz lantzen duten saioak txertatu.	HEZKUNTZA BERDINTASUNA (EZ) GURASO ELKARTEAK	Formazio planaren eboluzioa				
HG.A.1.3	Eskolekin harremana mantendu eta bide batez indartu hezkidetzaz haien heziketa proiektuan aurrera pausoak ematen joateko	HEZKUNTZA BERDINTASUNA (EZ)	Harremanaren eboluzioa Hezkidetzaz txertatuta dagoen proiektu kopurua				
HG.A.1.4	Hezkidetzaz diren material ez sexistak elkar banatu eskolarekin, liburutegiarekin, gaztelekuarekin...	BERDINTASUNA (EZ)	Bildutako eta banatutako material kopurua				
